

Aspe Mendia (2640m)

2015ko Azaroak 28, larunbata



Mendebaldeko Pirineotako mendi ikusgarrietakoa dugu hau. 1000 metroetatik gora menderatzen duen kareharrizko murrua da eta Candanchu (1557m) negu estazioaren inguruan aurkitzen da.

Irteera ordua: 6:30 h Estadioko atean. Bueltatzeko ordua 20:30 - 21:00 berriro ere Vitoria-Gasteizen.

Zailtasuna: 1200 m desnibeleko irteera. Igoera, orohar, altuera hartzen dihoan bide eroso batetik izango da. Bukaerako zatian, maldak tenteago jartzen da. Kirola maiz egiten duzuenontzat ez da arazorik izango.

Ibilbidearen nondik norakoak: Igoera Rigüeloko larreetan hasten da. Ibai zeharkatu eta gora egingo dugu Ipar ekialdeko norantzan GR-11rekin bat eginik gorago. Oso ikusgarria den inbutuaren bila joko dugu gorantz, zoanlde karstiko baten bitartez. Goi-lautada honek Las Llanas du izena, honen bitartez Aspeko arrailera helduko gara.

Kresta zabal bat zeharkatu beharko dugu puntu altuenera heltzeko eta tontorrerantz jotzeko. Behi goian, bazkaltzeko astia izango dugu

Behin indarberritutak, Buelto bidea hartuko dugu igotako toki berdinetik.

Egunaren bukaeran, autobusa izango dugu zain Vitoria-Gasteizera buelttzeko zain.

Gidek ibilbidea aldatu dezakete tokiaren eta eguraldiaren arabera, taldearen segurtasuna eta gozamina bermatzeko.

Erritmoa eta ordutegias: 250m desnibel ordukoa izango gutxi gorabehera. Geldi-uneak egongo dira batzeko eta zeozer azkarra jateko. Janaria gailurrean edo toki babestu batean izango da.

Beharrezko materiala:

- Beroki antzeko arropa
- Euritarako txaketa
- Txanoa, guantak eta eguzkitako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsierarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendiko botak.
- Eguna pasatzeko pik-nik antzeko janaria eta ura.

Guidak

Ibai Rico: Geografoa, glaziologoa eta EHUko irakaslea. Patagonia, Artikoan eta Himalayan ikerketak gauzatu ditu. Munduko hainbat mendilerro bisitatu dituen Alpinista eta eskalatzailea da, HRPa jarraituz Pirineoak puntaz punta. Alpetan, Kilimanjaron, Caucason, Norbegian, Alaskan eta Alto Atlasen gidaketa lanak gauzatu ditu.

Unai García Olano: Pirineotan, atlasean eta Alpetan jorrotutako alpinista eta eskalatzailea, "media montaña"ko gida da. Orientazio, reskate, lan bertikalen irakaslea da, gainera irteera gidatuak burutuz lan egiten du. 2013tik geroztik Fundación Estadio fundazioan egiten du lan Pirineotan eta Euskal Herrian zehar irteera gidatuak antolatuz.